TOLOSAKO UDALA

**AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**MOZIOA**

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Tolosako Udalak berresten du honelako indarkeria egiturazkoa dela, eta berresten du, era berean, konpromiso zehatz batzuk hartzeko ardura, udalerria indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeko.

Indarkeria matxista tresna bat da, genero desberdintasunak eta ordena sinbolikoa kontrolatzeko eta mantentzeko. Errealitate konplexua da, gizarte-aldaketetara eta eraldaketetara egokitzen dena, eta mota eta forma desberdinak hartzen dituena, zeinak ondo aztertu behar diren, haiei heldu eta iraultzeko.

Gainera, komunikabideek, publizitateak, telebistak, hainbat esparrutan emakume gutxi agertzeak edo agertzeak baina genero-estereotipoak edo rolak sendotzeko, lagundu egiten dute indarkeria honen adierazpide asko ikusezin izaten eta sozialki normalizatuak izaten. Horrek guztiak, aldi berean, legitimatu eta aukera ematen du indarkeria matxistaren beste adierazpide intentsuagoak eta ankerragoak sortzeko. Ezin dugu ahaztu aurten 3 emakume hil dituztela Euskal Herrian.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek

**25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES**

**MOCIÓN**

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, el Ayuntamiento de Tolosa reitera el carácter estructural de este tipo de violencia y reafirma su responsabilidad en asumir compromisos concretos para construir el municipio como un espacio sin violencia machista.

La violencia machista es un instrumento de control y mantenimiento de las desigualdades de género y del orden simbólico. Es una realidad compleja que se adapta a las transformaciones y cambios sociales, y adopta diferentes tipos y formas, que deben analizarse en profundidad, para abordarlos e invertirlos.

Además, los medios de comunicación, la publicidad, la televisión, la escasa presencia de las mujeres en algunos ámbitos o su presencia reforzando los estereotipos o roles de género, contribuyen a que gran parte de las expresiones de esta violencia sigan siendo invisibilizadas y normalizadas socialmente. Y esto a su vez, legitima y posibilita el surgimiento de otras expresiones más intensas y brutales de la violencia machista. No podemos obviar que este año, hasta la fecha 3 mujeres han sido asesinadas en Euskal Herria.

En este contexto, queremos hacer hincapié en el derecho a la reparación de

duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egiarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen kontaketa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren eraginak sozialki aitortzea. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartzeko.

las víctimas de la violencia machista. Una reparación que implica el derecho a la verdad, a que el relato de la violencia vivida, la denuncia y la palabra de las mujeres, sean legítimamente escuchadas. Todo ello con el fin de conseguir la restitución de los derechos conculcados y el reconocimiento social de los impactos de la violencia sufrida. Asimismo, se ha de apoyar el proceso de empoderamiento que refuerce la capacidad y autonomía para superar la situación de violencia.

Tokiko gobernuek geure gain hartzen dugu biktimei arreta eskaintzeko eta herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egiteko aitortua dugun erantzukizuna eta eskumena, gure herrietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak izanik, bide hori gaian jantzita dauden teknikoekin eta herriko emakume*[1] taldeekin batera egin behar dugu. Azken horiek dira bertako errealitatea gertutik ezagutzen dutenak eta beren militantzia denbora horretara dedikatzen dutenak. Hortaz, eskuz esku aritu beharra daukagu Tolosan eragiteko.

Los gobiernos locales asumimos la responsabilidad y competencia reconocida en materia de atención a las victimas y el desarrollo de campañas de sensibilización dirigidas a la población. Al ser las instituciones más cercanas a las mujeres que sufren la violencia machista en nuestro pueblos debemos actuar junto con las técnicas instruidas en la materia y los grupos de mujeres*[1] del municipio. Dichos grupos conocen de cerca la realidad del municipio y dedican su militancia a tal fin, por lo que debemos ir de la mano para alcanzar los objetivos previstos en Tolosa.

Horregatik, Tolosako Udalbatzak bere jarrera berresten du, emakumeei bermatzeko indarkeria matxistarik gabe bizitzeko duten eskubidea, eta, horren haritik, konpromiso zehatz hauek hartzen ditu:

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa ratifica su posición para que se les garantice a las mujeres su derecho a vivir sin violencia machista, y asume estos compromisos concretos:

1.- Arreta-prozesu guztiaren erdigunean jartzea indarkeria matxistak erasandako emakumeen erreparazio-eskubidearen aitortza, eta haiei entzutea eta beren beharrak eta eskaerak artatzea,

1.- Poner el reconocimiento del derecho a la reparación de las mujeres afectadas por la violencia machista en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y

1 Emakumea* kategoria politiko gisa ulertzea proposatzen da: genero-identitatean oinarritutako izendapena eta ez gorputzaren ezaugarri fisikoetan oinarritutakoa. / *Mujer* entendida como categoría política: denominación basada en la identidad de género y no en las características físicas del cuerpo.*

zainduz, era berean, prozesuak azkarrak izango direla eta bermatuko dela indarkeria matxista ez dela berriro gertatuko.

2.- Udal Protokoloaren ebaluazioa egitea eta, beharrezkoa bada, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko prozedurak sortzea eta/edo egokitzea, eta indarkeria jasaten duten emakumeei eta beren familiei arreta onena eta babesik handiena ematea, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioak ikuspegi nagusi bezala harturik.

3.- Jarraitzea Jabetze-Eskolako tailerren eta jardueren eskaintza handitzen eta hobetzen Tolosaldeko emakumeentzat martxan jarriko den etxean.

4.- Emakumeen elkarte eta kolektiboen sorrera erraztea eta sustatzea, helburu izanik sendotzea ahalduntze-prozesu banakakoak eta kolektiboak, eskainita, hartarako, trukerako eta autolaguntzarako espazioak, eta ekintza kolektiboa bultzatuta, indarkeria matxistaren salaketa publikoa egiteko.

5.- Emakumeen Etxea erreferentziazko espazio bat izango da eta bertan lekua izango dute, besteak beste, indarkeria matxista jasan eta jasaten duten emakumeek. Emakumeen etxea zabaltzeak erreparazio eskubiderako ateak zabalduko dizkie eskualdeko emakumeei. Bertan garatuko dira udalek eskaintzen dituzten zerbitzu horiek eta indarkeria hau erraietatik erauztea landuko duten beste hainbat ekimen.

demandas, velando por la celeridad de los procesos y en la garantía de que no se vaya a repetir la violencia machista.

2.- Realizar la evaluación del Protocolo Municipal y en caso necesario crear y/o adecuar los recursos, servicios y procedimientos necesarios para mejorar la coordinación interinstitucional, ofrecer la mejor atención y el mayor apoyo a las mujeres que sufren violencia y a sus familias, desde el enfoque del empoderamiento feminista y la reparación colectiva e individual.

3.- Continuar incrementando y mejorando la oferta de talleres y actividades de la Escuela de Empoderamiento en la futura casa que se habilitará para las mujeres de Tolosaldea.

4.- Favorecer y promover la creación de colectivos o asociaciones de mujeres, con el objetivo de reforzar los procesos individuales y colectivos de empoderamiento, ofreciendo espacios de intercambio, de auto-apoyo e impulsando la acción colectiva para la denuncia pública de la violencia machista.

5.- La Casa de las Mujeres será un espacio de referencia de la que formarán parte, entre otras, las mujeres que han sufrido y sufren violencia machista. Con la apertura de esta casa las mujeres de la comarca podrán hacer uso del derecho de reparación; asimismo, se ofrecerán diversos servicios de los ayuntamientos y se realizarán distintas iniciativas dirigidas a incidir en la raíz del problema de esta violencia.

6.- Ikastetxeetako hezkuntza-komunitateari begirako Hezkidetza proiektua indartzen jarraitzea, ondorengo gaiak sustatzen baitira: berdintasunean oinarritutako sexualitatea; nesken ahalduntzea eta mutilen zeregina berdintasunezko harremanen alde, era guztietako erasoak atzemateko eta prebenitzeko.

6.- Seguir reforzando el proyecto de coeducación dirigido a toda la comunidad escolar de los centros de enseñanza, en los que se promueve la sexualidad cimentada en la igualdad, el empoderamiento de las chicas y el papel de los chicos a favor de las relaciones igualitarias, con el fin de detectar y prevenir toda clase de agresiones.

7.- Aitortzea Mugimendu Feministari borroka honetan aitzindari izan izana eta egin duen ibilbidea; izan ere, lortu du indarkeria matxista esparru publikora eta politikora eramatea, zertarako-eta, batetik, lankidetzan eta lanean jarduteko adituekin eta indarkeria matxistaren biktimen eta indarkeria horretatik bizirik irten diren emakumeen elkarteekin, eta, bestetik, erantzun irmoagoa emateko gizarte-gaitz honi.

7.- Reconocer al Movimiento Feminista su carácter pionero y su trayectoria en esta lucha, que ha logrado colocar la violencia machista en el ámbito público y político para colaborar y trabajar junto con expertas y asociaciones de mujeres víctimas/supervivientes de violencia machista y dar una respuesta más contundente a esta lacra social.

**Azkenik, herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan.**

**Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.**

Tolosan, 2019ko azaroaren 22an

PATXI AMANTEGI ZUBIRIA
EAJ-PNV

KRISTINA PELAEZ ERRAZKIN
EHBILDU

JOSE MARIA VILLANUEVA TELLERIA
PSE

TOLOSAKO
UDALA

# Azaroak 25
# EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

## Azaroaren 22an:

Orixe, Laskorain eta Herrikide batxilergoko 1. mailako ikasleek antolatuta:

**Hankazgora margotu dezagun mundua.** Kultur Etxean

17:00 Emakume eta bertsolari izatea oholtza gainean. Oihana Iguaran
19:00 Dj tailerra, serigrafia eta txapak
20:30 Ekiñe Casado eta Dj Miau* + pintxoak

18:00 **Conversatorio**: *Vidas que transitan fronteras: diálogo sobre violencia y trata con fines de explotación sexual, en el paso por la frontera sur.* Formadora: Bea de Lucas Larrea (CEAR-Euskadi). Castellano. Inscripción previa. Kultur Etxeko aretoan.

## Azaroaren 23an:

12:00 **Flashmob-a**. Modus Operandi taldearen "Ezetz da ezetz" kanta dantzatuko da. Mila Garcia de Iturrospek egindako koreografia Usabal Kiroldegiko ikasleen laguntzarekin.Trianguloan

12:30 **Batukada Feminista.** Trianguloan

Pelusa egitasmoa, Kimera eta Maknad elkarteek antolatuta:

11:00-13:00 **Erosotasunetik erotikotasunera.** Manikiekin egingo den esperimentu soziala. Trianguloan
17:00-20:00 **Nola bizi da sexualitatea artean?**. Emakume gazte euskaldunen artelanen **erakusketa** eta Jaime de los Rios artistaren *DIRDIZARI* instalazioa. Euskal Pizkundea plazan
18:00-19:00 **Gorputza plazeraren iturri**. Maite Higuero sexologoa, Berexiart eta Elene Tamayo artistekin mahai-ingurua. Euskal Pizkundea plazan.

Asociación Divina de Mujeres Nigerianas eta Tolosaldeko emakumeen elkarteek eta talde feministek antolatuta:

***Indarkeriaren aurrean, saretze feminista! Tolosaldean salda badago!.***
15:30-18:00 **Nigeriako eta Euskal Herriko janariak.** Trianguloan
19:00-23:00 Indarkeria matxistaren aurkako **antzezlana**.Trianguloan

## Azaroaren 24an:

20:30 Zine-emanaldia: *Retrato de una mujer en llamas.* Leidorren

## Azaroaren 25ean:

11:30 **Kontzentrazioa**, *Indarkeria matxistarik gabeko herri baten alde* lelopean. Plaza Zaharrean

Tolosaldeko Asanblada Feministak antolatuta:

19:00 **Emakumeen giza-katea** Triangulotik Ibarrako biribilguneraino. *Indarkeriaren aurrean saretze feminista* lelopean.
19:35 **Testu irakurketa**. Trianguloan



TOLOSAKO
UDALA